

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

26/2026 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea behien errinotrakeitis infekziosoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren nahitaezkotasuna ezartzeari Arabako Lurralde Historikoan

Behien errinotrakeitis infekziosoa (aurrerantzean, "IBR") I. motako behi herpesbirusak (HVB-1) eragindako gaixotasun infekzioso eta kutsakorra da, eta animaliei arnasketa eta ugalketa zeinuak eragiten dizkie; batzuetan ez dira agerikoak (azpiklinikoak), eta galera ekonomikoak eragin ditzake ernalezintasun arazoengatik, bai eta animalien, semenaren, obuluen eta enbrioien merkataritzari jarritako mugengatik ere.

Gaixotasun hori OMSaren (Animalien Osasunerako Mundu Erakundea) Lurreko Animalientzako Osasun Kodearen 1.8 kapituluaren sartuta dago, eta urriaren 10eko 779/2023 Errege Dekretuak ezartzen du nahitaezko adierazpena dela eta jakinarazpena arautzen du, OMSaren zerrenda horretan baitago.

Bestalde, Europako Batzordearen 2018ko abenduaren 3ko 2018/1882 (EB) Betearazpen Erregelamenduak, gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko zenbait arau aplikatzeari buruzkoak, behien errinotrakeitis infekziosoa (IBR) "C, D eta E" gaixotasun gisa kategorizatu zuen, hau da, estatu kide jakin batzuentzat garrantzitsua den gaixotasun gisa, eta, beraz, neurriak hartu behar dira gaixotasun hori ofizialki aske deklaraturako Batasuneko eskualdeetara edo desagerrarazteko programak dituzten eskualdeetara heda ez dadin.

Ondoren, Batzordearen 2021eko apirilaren 15eko 2021/620 (EB) Betearazpen Erregelamenduak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 (EB) Erregelamendua aplikatzeko arauak ezarri zituen, zenbait estatu kideren, zonaren edo haietako atalen gaixotasunik gabeko estatusa eta txertorik gabeko gaixotasunik gabeko estatusa onesteari buruzkoak, gaixotasun jakin batzuei dagokienez, hala nola IBRri.

Espainiako Estatuan, Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legeak animalien osasunaren arloko oinarritzko arauak eta koordinazio arauak ezarri zituen, eta administrazio publikoei ahalmena eman zien animalien osasunaren arloan beharrezkoak diren programak eta jarduerak egiteko, nork bere eskumenen esparruan.

Azkenik, irailaren 27ko 554/2019 Errege Dekretuak ezarri zituen behi azienden ustiattegietan IBRa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko jarduketan oinarriak eta gaixotasun horren aurka borrokatzeko borondatezko programa bat, bai eta behi aziendaren ustiattegiek IBRaren aurrean lor ditzaketan osasun kalifikazio ofizialak ere, haiek lortzeko edo mantentzeko baldintzak adierazita.

2019az geroztik, Arabako Lurralde Historikoko behi azienden ustiattegiak biltzen dituzten zenbait elkartek beren borondatez hartu dituzte osasun planak edo programak, zeinetan sartu baita IBRaren gaixotasuna. Jarduera horiek abeltzaintza programetarako laguntzei buruzko foru dekretuetan ezarritakoaren arabera sustatu, babestu eta finantzatu dira; azkena, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 34/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta haiei dagozkien urteko deialdiak.

Programa “Ekoizpena eta Ugalketa” motako ustiattegietan aplikatzen da (sailkapen zooteknikoa: “Esne ekoizpena”, “Haragi ekoizpena” eta “Ekoizpen mistoa”). Txosten hau idatzi den egunean, IBRaren programan dauden lurraldeko ustiategiak 181 dira; hau da, Arabako behien guztizko erroldaren ehuneko 52.

Programa hau borondatez aplikatzea oso eraginkorra izan da Arabako behi aziendaren osasun egoera hobetzeko, eta lurralde historiko osoan modu homogeneoan ezartzea lortu da. Hala ere, behi azia maneatzeko sistema, neurri handi batean, herri larreen aprobetxamenduan oinarritzen denez, borondatezko programaren bidez gaixotasun horren aurrean saneatutako behi aziendak urteko zati handi batean saneatu gabeko ustiattegietako animaliekin bizi behar izaten du, eta horrek osasun egoerak okerrera egitea eragiten du, kutsatze mekanismoak eta gaixotasun biriko horren patogenia direla eta.

Uste da IBRren kontrol programa borondatezkoa izateak arriskua ekar dezakeela Araban dagoeneko programan sartuta dauden abeltzaintzako ustiategien osasun egoerak okerrera egin dezan.

Gainera, kontuan hartu behar da Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin partekatutako aprobetxamendua duten herri basoetan ere osasun arriskuko egoera bera gertatzen ari dela; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoek dagoeneko ezarri dute programa horren nahitaezkotasuna beren behi azienden errolda guztietan, eta sektorea ordezkatzeko agenteak programa hori ezartzea eskatzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.9 artikulua xedatzen duenez, EAEk eskumen eskusiboa du nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera, eta Autonomia Erkidego erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko 27/1983 Legearen 7.b) artikulua arabera, lurralde historikoen eskumena da erakunde erkideek animalien ekoizpen eta osasunaren arloan duten legeria beren lurraldean garatu eta betearaztea.

Horregatik guztiagatik, egokia eta komenigarria da, Nekazaritza Zuzendaritzaren iritziz, behien errinotrakeitis infekziosoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa nahitaez ezartzea une honetan, Arabako Foru Aldundiak animalien osasunaren arloan erakunde erkideen araudia garatzeko dituen eskumenen arabera, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua aplikatuz.

Gainera, proposatzen den neurria Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legearen 8. artikulua babesean ezarriko litzateke. Artikulu horrek horrelako egoerak aurreikusten ditu, eta berariaz jasotzen du autonomia erkidegoetako organo eskudunek Estatuko oinarritzko araudian oro har ezarritako osasun programak zabalitzeko aukera.

Entzun zaio Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari, eta haren irizpena onartu da.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da araudi berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduna neurritzkoa da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatu baita. Dekretua idaztean, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Kontuan hartu dira, halaber, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak

horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako lege ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioaz denaz bezainbatean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarri edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea foru dekretuari, zeinaren bidez ezartzen baita behien erri-notrakeitis infekziosoa (IBR) prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren nahitaezkotasuna Arabako Lurralde Historikoan, eranskineko artikuluen arabera.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen iragankorra

554/2019 Errege Dekretuan adierazitako IBRren kalifikazio sanitarioen bat lortzeko diagnostiko probak foru dekretu hau indarrean jarri aurretik egin ez zaizkien ustiategi guztiek 2026ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dituzte proba horiek.

Azken xedapena. Indarrean sartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, nahitaezkoa izango da Arabako Lurralde Historiko osoan behien errinotrakeitis infekziosoa (IBR) prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa.

Programa irailaren 27ko 554/2019 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera beteko da, bereziki ustiatgien kalifikazio sanitario ofizialak lortzeari, mantentzeari, eteteari eta berreskuratzeari dagokienez, bai eta animalien mugimenduari aplikatu beharreko osasun baldintzei dagokienez ere, IBRren aurrean duten osasun egoeraren arabera.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren lurralde mugen barruan kokatuta dauden behi azienden ustiategi guztiei aplikatuko zaie, eta, ondorioz, baita Arabako Lurralde Historikoaren lurralde mugen barruan aitortutako azalera duten ustiategiei ere, haien forma juridikoa eta titulartasuna edozein izanik ere. Salbuespen izango dira gizentzeko animalien merkataritza operadoreak eta gizendegiak, itxiak zein irekiak.

3. artikulua. Ustiatgien kalifikazioa sanitarioa

Arabako Foru Aldundiak behi aziendaren ustiategiak une bakoitzean sailkatuko ditu, behien errinotrakeitis infekziosoaren birusarekiko duten osasun egoeraren arabera, 554/2019 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako osasun kalifikazioaren arabera.

Kalifikazioa eteteko eta berreskuratzeke, 554/2019 Errege Dekretuaren II. eranskineko c) apartatuan xedatutakoa beteko da.

4. artikulua. Ustiatgien kalifikazio ofizialen erregistroa

Ustiategiak 3. artikuluen arabera kalifikatu ondoren, ustiatgien kalifikazioari buruzko informazioa Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistro Orokorrean sartuko da, Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistro Orokorra ezarri eta arautzen duen martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuaren 3.6 artikuluan aurreikusitako moduan.

5. artikulua. Programaren zuzendaritza teknikoa

Ustiategi bakoitzak Arabako Lurralde Historikoan abereei buruzko osasun programa ofizialak gauzatzeko Arabako Foru Aldundiak gaitutako albaitari baten zuzendaritza teknikoa izan beharko du. Albaitari hori arduratuko da programa bere ustiategian aplikatzeaz.

Albaitaria arduratuko da osasun programa gauzatzeko behar diren lan guztiak egiteaz, osasun kontrolak, txertoen aplikazioa eta abere mugimenduaren kontrola barne, IBRri dagozkion osasun kalifikazioak lortzeko eta mantentzeko.

6. artikulua. Programaren kostua

Arabako Foru Aldundiak bere gain hartuko du behien errinotrakeitis infekziosoa (IBR) prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko nahitaezko programa gauzatzea, animalien osasunaren arloan dituen eskumenen esparruan.

Arabako Foru Aldundiak zuzenean edo indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion bitarteko juridikoen bidez egin ahal izango ditu programa gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketak, hala nola laginak ateratzea, laborategiko analisiak, osasun kontrolak, txertaketa jarduerak, datu administratiboen tratamendua eta programa garatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduketak.

Arabako Foru Aldundiak programa gauzatzetik eratorritako kostuen finantzaketa edo bereganatze maila ekitaldi bakoitzerako zehaztu ahal izango da, dauden aurrekontu baliabideen eta animalien osasunaren arloan eskumena duen sailak onetsitako plangintza sanitarioaren arabera.

7. artikulua. Laborategi ofiziala

Eskalmendiko Abeltzaintza Laborategia izendatzen da proba diagnostikoak egiteko laborategi ofizial, Arabako Lurralde Historikoan behien infekziozko errinotrakeitisa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren barruan.

Hala ere, onartu egingo dira Bizkaiko eta Gipuzkoako eta beste autonomia erkidego batzuetako animalia osasuneko agintari eskudunek izendatutako laborategietan egindako analisien emaitzak.

8. artikulua. Arau hausteak

Foru agindu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, animalien osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legean ezarritako arau hauste eta zehapenen araubidea aplikatuko da, egon daitezkeen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoei kalterik egin gabe.